

ZUMAIAKO UDALA

GIPUZKOAKO PROBINTZIA

2004KO ABENDUAREN HOGEITAHIRUAN UDAL PLENOAK EGINDAKO EZOHIKO BATZARRALDIKO AKTA.-

Zumaian, bi mila eta laugarren urteko abenduaren hogeita hiruan, arratsaldeko zortzietan, Foronda Kultur Etxeko Biltzar Aretoan, Udal Plenoa eratu da ezohizko batzarraldia egiteko asmoz, aurrez izendatutako eguneko aztergaiari jarraituz. Eta garaiz eta era onez deituak izan zirelarik, ondorenean aipatzen diren udal bazkideak etorri ziren:

LEHENDAKARITZA.-

Maria Eugenia ARRIZABALAGA OLAIZOLA andrea.

ZINEGOTZIAK.-

Asier ESNAL ALBIZU jauna.
Manuel ZUBIA ARTABE Jauna.
Lide AMILIBIA BERGARETXE andrea.
Mikel OLAIZOLA ELOSUA jauna.
Andoni ETXANIZ OSA jauna.
Joseba Josu ASPIAZU AZKARRAGA jauna.
Mikel GARATE GOLMAIO jauna.
Iñaki AGIRREZABALAGA ALKORTA jauna.
Abel YEREGUI SASIAIN jauna.
Emiliano CABAÑAS GONZALEZ jauna.
Paloma HEREDERO NEGREDO andrea.

IDAZKARIA.-

Miren ETXEZARRETA GARMENDIA.

1.- 2005. URTERAKO AURREKONTU OROKORREN ONARPENA, BIDEZKO BADA.

Bilera eratutzat eman ondoren korporazioko kide batek bilerarako deialdia ez duela jaso aditzera ematen du.

Idazkariak bilerarako deialdiak ohizko eran egin direla dio, korreo elektronikoz eta gutun bidez. Gutun hauek betiko eran banatu direlarik. Banatzaileei argibideak eskatzekotan gelditzen da.

Alkateak, 2.005eko aurrekontu orokorraren bozketa prozedurari buruz zera dio, lehenik osotasunezko emendakinak bozkatuko direla, ondoren emendakin partzialak eta azkenik 2.005eko aurrekontu orokorraren proposamena bere osotasunean bozkatuko dela.

Ondoren, Hazienda Batzordeko Lehendakariak 2.005eko Aurrekontu Orokorraren memoriaren testua irakurtzen du.

ZUMAIAKO UDALA

2005.urteko Udal Aurrekontua

MEMORIA

1.- Aurrekariak

2004ko urriaren 14ko Gobernu Batzordeak 2005. urterako Aurrekontuak egiteko Ildo Nagusiak onartu zituen. Dokumentu honek datorren urteko Aurrekontuak egiteko premisak jasotzen ditu, finantza eszenategia eta egutegia:

1.- “Aurrekontuen eszenategia”k, 18. orrialdean jasotzen denak, 2005. urtean Zumaiako Udalak bere politika publikoak aurrera eramateko izango duen dirua ezagutzera ematen du. Eszenategi hau ondorengo baldintzekin egin da:

1.1.- Sarrerren kalkulua (1,2 eta 3. atalak) 2004ko azaroaren 4an onartutako 2005. urterako ordenantza fiskaletan proposatu ziren zergen, tasen, prezio publikoen eta beste eskubide publikoei dagozkien tipoak eta tarifak aplikatuta egin da.

1.2.- Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren kalkulua (2. kapitulua), aurreikusten diren eraikuntzen arabera egiten da. (Puntanuetako promozioa, Ardantza,...)

1.3.- Udal Finantzaketarako Foru Fondoan, 2004ko aurrekontuarekin alderatuta, %9ko igoera aurreikusten da.

1.4.- Inbertsioen besterenganatzea, Zumaia Lantzenen bitartez, etxebizitzetarako eta industriarako partzelen salmentari dagokio, beraiek onartutako 2005erako ekintzen egitasmoan jasotzen den moduan.

1.5.- Kapitalezko sarrerak, VII kapitulua, Eusko Jaurlaritzatik, Izartu II programaren barruan eta San Jose Kofradiako berrikuntzarako ematen dituen dirulaguntzei dagokiona da.

1.6.- Zorpetze garbia, hau da, Sarreren aurrekontuaren 9. kapituluaren (Finantza Pasiboak) eta Gastuen Aurrekontuaren 9. kapituluaren (Finantza Pasiboak) arteko aldea zero da. Zorraren kopurua ez da igotzen.

1.7.- Aurrekontuaren defizita, Gastuen Aurrekontuko 9. kapituluaren aurreikusten diren amortizazioen kopuru berdina da. Beraz, partida hauen kopurua 255.000 eurotako izango da.

1.8.- Udal zorraren interesak ordaintzeko kopuruak, sinatutako kontratuen baldintzen arabera izango dira, finantza merkatuaren egoera eta sortuko diren finantza beharren arabera, hasierako kopurua 25.000 eurotan finkatuko delarik.

2.- Pertsonalaren urteko ordainketa osoak, negoziazio kolektibotik ondorioztatutakoak, 2004ko abenduaren 31ean indarrean dauden kopuruak aldatzen dituenak izango dira.

3.- Beste gastu arruntekin, (2 eta 4 kapituluak), irizpide orokorra jarraituko da, guztira ez dute %3,5eko igoera izango.

4.- Udal Entitate Publikoen eta Organismo Autonomoen eragiketa arruntak estaltzeko zuzenduta dauden transferentziak, ildo hauetan 1 eta 2 kapituluentzako ezarri diren arauen arabera aurreikusiko dira. Urola Kosta Udal Elkartearekin lotuta dauden gastuak, Amankomunitate honen aurrekontuen biltzarrean azaltzen diren beharretara egokitu beharko dira.

5.- Inbertsioei eta Kapitalezko Transferentziei dagokienez, (6 eta 7 kapituluak), kreditu konpromisoak eta inbertsio plan ezberdinetan aurreikusten diren urteko kopuruak hartuko dira kontuan, eta beharrezkoa bada, aurreikusten den bilakaerara egokitu beharko dira.

6.- Pertsonalari ematen zaizkion aurrerakinak (8. kapituluak), bat etorriko dira aurrerakin hauen itzulketaren kopuruarekin.

7.- Ildo nagusi hauetan jasotzen diren puntuetan eman daitekeen edozein gehikuntza gehigarria, Sail edota dagokion Elkarteek zuritu beharko dute.

8.- 2005erako aurreikusten den edozein ekintza berriak, nahiz arrunta nahiz kapitalezkoa, aparteko justifikazio eta analisi bat beharko du.

9.- Inbertsio berriak proposatzerakoan, Departamentuak, beraien gestio errealaren gaitasuna kontuan hartu beharko du, beraien aurrekontuen exekuzio maila kontuan izanik (O Fasea), eta abian dauden inbertsioak urte bat baino gehiagotan banatzeko aukera.

2.- Aurrekontu Orokorren edukia

Zumaiako Udaleko Aurrekontu Bateratua 2005. urterako, bai gastu egoerari dagokionez bai sarreraren egoerari, 18.125.891 eurotako da, 28. zenbakiko orrialdean jasotzen den laburpenaren arabera.

Zumaiako Udaletxeko Aurrekontuen gastu egoera, ordainketa kredituei dagokionez, 9.420.350 eurotako da eta konpromisozko kredituei dagokionez, 3.511.376 eurotako da. 2005.urteko ondorengo konpromisoak azalpena konpromisozko kredituen eranskinean zehazten da. Zumaiako udaletxeko Aurrekontuen sarreraren egoera, 9.420.350 eurotako da, 255.000 eurotako aurrekontu defizita barne duelarik.

“San Juan Egoitza” udal organismo autonomoaren Aurrekontuen gastuen eta sarreraren egoera, 948.758 eurotako da.

“Musika Patronatua” udal organismo autonomoaren Aurrekontuen gastuen eta sarreraren egoera, 119.668 eurotako da.

“Zumaia Lantzen E.A.” udal sozietate publikoaren Aurrekontuen gastuen eta sarreraren egoera, 8.620.758 eurotako da.

3.- **Ekonomi egoera**

Gipuzkoako Lurralde historikoko udalen ogasunen testuinguru orokorrean, Zumaiako Udal honen ogasunaren ekonomi egoera **oso ona** dela esan dezakegu. Azkeneko urte hauetan onartu diren aurrekontuen ezaugarriak izan dira, gastuen zorrotasuna eta sarrera arruntak pixkanaka finkatzen joatea. Honek aurrezki garbiaren igoera jarraiki bat sortu du, inbertsioak finantzatzeko diru iturri nagusi bat sortuz eta zorpetzea eta maileguen saldu bizia jaitsiaz.

4.- **Finantza egoera**

Eskueran dauden baliabideen zerga bilketaren zalutasun eta aldizkakotasunak gastuak puntualki ordaintzeko aukera ematen du; hori dela eta, urtean zehar Diruzaintzan gerta daitezkeen arazo eta gorabeherak ez direla izango pentsa dezakegu. Egoera

honek, dirua banku edo aurrezki kutxetan ezartzeko aukera emango du finantza sarrerak lortu ahal izateko.

5.- Ondare egoera

Udalak utzitako ondasuna Musika Patronatuari eta San Juan Egoitzari adskribaturiko ondarea bakarrik da.

Ekitaldi honetan aurreikusten diren aldaketak, inbertsio gastuetatik bakarrik datoz, gastuetako VI. atalean zehazten direnak.

6.- Aurrekontua egiteko kontuan izandako irizpideak

Gobernu Batzordeak Aurrekontuak egiteko onartu zituen Ildo Nagusiak jasotzen dituzte finantza egoera edo 2005. ekitaldirako aurreikusten diren diru sarrerak, sail ezberdinak aurrekontuak lantzeko jarraitu behar dituzten irizpideak eta aurrekontuak onartzeko jarraituko zen egutegia.

Dokumentu hau oinarri hartuta, 2005. urterako Aurrekontuen Proiektua, esparru bakoitzeko arduradunek egindako proposamenetik jasotako informazioa hartuz egin da.

Lan hori egiterakoan, erraztasunak eman asmoz, esparru bakoitzeko ordezkariak duten alderdien eskueran ondoko hauek utzi dira: zerbitzuak eratzeko edo aldatzeko hartutako erabakiak eta beharrezko gainerako aurrekariak; aurreko urteko Aurrekontua gauzatzeari buruzko informazioa, segidako tratuaeren betebeharrak, legezko ezarpenaren edo onartutako konpromisoen bidezkoak.

Proposamenak gastuaren ekonomi izaeraren arabera sailkatu dira, inbertsio jarduerak eta gastu arruntak bereiztuta. Proposatzaileen eta Ogasuneko Informazio Batzordeko lehendakariaren arteko zenbait bileren ondorioz, proposamenei lehentasuna eman zaie giza beharra kontuan izanik, beti ere, aurreikusi den finantza eszenategi barruan.

7.- Aurrekontuaren helburuak

2005. ekitaldirako Aurrekontuaren bitartez, Udalaren ekonomi jardueraren programa gisa, baliabideei ahalik eta etekin gehiena atera nahi zaie, gastu arrunta kontrolatuz, arrazionalizatuz eta zainduz. Horrela, udal aurrekontuak, 5.695.188 eurotako egiturazko gastu arrunta kontsolidatzen du, iaz baino %8,9 gehiago. Finkatutako egiturazko gastu

arrunta honetatik kanpo usten ditugu “Kreditu Globala”ri dagokion kopurua eta sarrera loturik edo baldintzatuta dituzten gastuak (GLD, “Euskara Normalkuntzarako Teknikaria” eta sententziak), lehenengo eta bigarren ataletan kontabilizatuta daudenak.

Bestalde, Egiturazko Sarrera Arruntak gora egiten dute. Sarrera hauek lehenengo ataletik bosgarren atal artekoak dira baina aparteko izaera dutenak kenduta, hau da “Zeharkako Zergak” , “Hirigintza kargak” eta zenbait gastu zuzenak finantzatzeko lotuta daudenak. Sarrera hauen kopurua 7.583.279 eurokoa da, iaz baino %9,10 gehiago. Sarrera eta gastu hauen aldea (Aurrezki gordina finkatua), finantza karga ordaintzeko eta inbertsiorako erabili nahi da azpiegitura hobetzeko eta osatzeko eta administratuen ongizatea hobetzeko. Asmo horrek ez du ekarriko ematen diren zerbitzuen maila gutxitu beharra, ez eta administratuek diru-ekarpen gehiago egin behar izatea ere.

Zorra mantendu egiten da (maileguen saldu bizia). Zorra gauzatzearen erabakia, 2004ko aurrekontuen likidazioak emango duen emaitzaren arabera hartuko da.

Zorra mantenduz eta Sarrera Arruntak igota, zorpetzearen ratioa %3,16an geratzen da, iaz baino 0,29 puntu gutxiago.

8.- Aurrekontuaren edukia

8.A.- AURREKONTUAREN ZENBAKI HANDIAK.

Ondorenean, diru-sarrera eta gastuen laukiak aurkezten ditugu, eurotan adieraziz eta gutzirako diru-sarrera eta gastuen mailari buruzko portzentajeak kalkulaturik. Aldi berean, datu hauek, 2004ko hasierako aurrekontuak ematen dituen portzentajeekin konparatzen dira.

| Sarrerazko atalak | 2005 Aurr. | 2004 Aurr. | % 2005 | % 2004 | % 05/04 |
|-----------------------------------|------------------|------------------|--------------|--------------|-------------|
| Zuzenezko Zergak | 1.756.080 | 1.630.900 | 18,64 | 18,56 | 7,68 |
| Zeharkako Zergak | 600.000 | 600.000 | 6,37 | 6,83 | 0,00 |
| Tasak eta beste sarrerak | 1.906.035 | 1.822.335 | 20,23 | 20,74 | 4,59 |
| Transferentzi Arruntak | 4.449.875 | 4.104.157 | 47,24 | 46,71 | 8,42 |
| Ondare sarrerak | 154.913 | 83.376 | 1,64 | 0,95 | 85,80 |
| Sarrera Arruntak Guztira | 8.866.903 | 8.240.768 | 94,12 | 93,79 | 7,60 |
| Inbertsioen besterenganatzeak. | 0 | 0 | 0 | 0 | |
| Kapitalezko Transferentz. | 280.417 | 278.000 | 2,98 | 3,16 | 0,87 |
| Finantza aktiboak | 18.030 | 18.030 | 0,19 | 0,21 | 0,00 |
| Finantza pasiboak | 255.000 | 250.000 | 2,71 | 2,85 | 2,00 |

| | | | | | |
|-----------------------------------|------------------|------------------|-------------|-------------|-------------|
| Kapitalezko Sarrerak Guzt. | 553.447 | 546.030 | 5,88 | 6,21 | 1,36 |
| Guztira | 9.420.350 | 8.786.798 | 100 | 100 | 7,21 |

| Gastuak Atalak | 2005 Aurr. | 2004 Aurr. | % 2005 | % 2004 | % 05/04 |
|-------------------------------|-------------------|-------------------|---------------|---------------|----------------|
| Pertsonal gastuak | 1.655.294 | 1.493.823 | 17,57 | 17,00 | 10,81 |
| Gastu Arruntak | 3.231.175 | 3.041.930 | 34,30 | 34,62 | 6,22 |
| Transferentzi arruntak | 1.047.053 | 973.219 | 11,11 | 11,08 | 7,59 |
| Funtzionamendu gastuak | 5.933.522 | 5.508.972 | 62,99 | 62,70 | 7,71 |
| Interesak | 25.000 | 35.000 | 0,27 | 0,40 | -28,57 |
| Finantza pasiboak | 255.000 | 250.000 | 2,71 | 2,85 | 2,00 |
| Finantza karga | 280.000 | 285.000 | 2,97 | 0,32 | -1,75 |
| Gastu arrunta | 6.213.522 | 5.793.972 | 65,96 | 65,94 | 7,24 |
| Inbertsioak | 2.110.032 | 2.794.596 | 22,40 | 31,80 | -24,50 |
| Kapitalezko transferentziak | 478.766 | 180.200 | 5,08 | 2,05 | 165,69 |
| Finantza aktiboak | 618.030 | 18.030 | 6,56 | 0,21 | 3327,79 |
| Kapitalezko gastuak | 3.206.828 | 2.992.826 | 34,04 | 34,06 | 7,15 |
| Guztira | 9.420.350 | 8.786.798 | 100 | 100 | 7,21 |
| Aurrezki gordina | 2.653.381 | 2.446.796 | | | 8,44 |
| Aurrezki gordina % | 29,92 | 29,69 | | | |
| Aurrezki garbia | 2.398.381 | 2.196.796 | | | 9,18 |
| Zorpetzea | 3,16 | 3,46 | | | -8,69 |

8.B.- AURREKONTUAREN AZTERKETA OROKORRA.

Zumaiako Udalaren 2005.urterako aurrekontua 9.420.350 eurotako da, 2004ko hasierako aurrekontua baino %7,21 gehiago.

Gastuaren sailkapen ekonomikoa kontuan hartuz, “Ondasun arrunten eta zerbitzuen” II. atalburua 3.231.175 euroekin eta aurrekontu osoaren %34,3kin, gastu handiena da, “Inbertsioen” VI atalburua horren ondoren datorrelarik 2.110.032 eurokin eta %22,40kin.

Bestalde 2005. urteko aurrekontu honetan, I.go atalburua, “Langileen ordainketak”, portzentajearen garrantziaren arabera, hirugarren tokian dago, 1.655.294 eurokin eta %17,57kin.

Funtzionamendu gastuko atalburuen joera nagusia igotzekoa da, 2004ko aurrekontuarekin alderatuta, %7,71an.

Bestalde, kapital gastuetako atalburuen joera igotzekoa da, %7,15ean: Inbertsiotako VI. atalburua %24,50an jaisten da, Kapital Transferentzietako VII. atalburua %165,69an igotzen da eta Finantza Pasiboen Aldaketaren VIII. atalburuak igoera handia du, Zumaia Lantzen Elkartean egingo den kapital gehikuntza dela eta.

Diru-sarrerren sailkapen ekonomikoa kontuan hartzen badugu, “Transferentzia arruntak” IV. atalburua da, beste behin ere, sarrerren atalburu nagusia, aurrekontu osoaren %47,24kin, aurreko urtearekiko %8,42ko igoera izanik.

Diru-sarrera arruntaren azalpenak, %7,60ko igoera orokorra dute. Zuzenezko Zergen I.go atalburuak %7,68ko igoera du eta Tasa eta bestelako sarrerren III. atalburuak %4,59koa. Bi atal hauen igoerak 2005. urterako onartu diren ordenantza fiskalen ondorio dira. Ondare Sarrerren 5. atalak igoera handia du, etxez etxeko zerbitzuari dagokionez, gizarte zerbitzutan Biharko enpresarekin sinatu den hitzarmena dela eta. IV. atalak ere igoera handia du, %8,42koa, Udal Finantzaketarako Foru Fondoaren igoeraren ondorio. Zeharkako Zergen II. atalburua mantendu egiten da 600.000 eurotan. Ez dugu ahaztu behar, 2003, 2004 eta 2005. urteetan Tasa eta Beste Sarrerren III. atalean ezohizko sarrera handi batzuk izan direla “hirigintza karga” kontzeptuan, inbertsioak egitera zuzendu direnak. Datozen urteetan, sarrera hauek segur aski ez dira errepikatuko.

Kapital diru-sarrerei dagokienez, “Finantza pasiboen aldaketaren” atalburua (maileguak) aurten 255.000 eurotako da, gastuetako IX. atalburuan aurreikusten den kopuru bera maileguen amortizaziorako, beraz zorra ez da gehitzen.

8.C.- GASTUAK

Ondoren, azterketa zehatz bat egiten dugu eta 2004ko aurrekontuarekin dauden diferentziak ikusten ditugu:

* 1.go Atalburua.- Langileen ordainketa

| <u>AZALPENA</u> | <u>2004</u> | <u>2005</u> | <u>DIFER.</u> |
|-------------------|-------------|-------------|---------------|
| Funtzionarioak | 1.030.650 | 1.047.339 | 1,62 |
| Langile laboralak | 288.768 | 408.881 | 41,59 |
| Ordez. Gastuak | 106.400 | 109.774 | 3,17 |
| Prestakuntza | 3.005 | 3.100 | 3,16 |
| Aseguruak | 6.500 | 7.500 | 15,38 |
| Kalteordainak | 0 | 16.060 | |
| Hitzarmen igoerak | 58.500 | 62.640 | |
| | 1.493.823 | 1.655.294 | 10,81 |

- Atalburu hau bere osotasunean dago lotuta.
- Igoeraren aurreikuspena %4koa da.
- Atal honen igoeraren arrazoiak dira: arkitekto baten kontratazioa, hirigintzako administrari laguntzailearen lanaldi osoa, turismo bulegorako administrari laguntzaile baten kontratazioa eta liburutegian ordezkapenak egiteko bi hilabete.
- Sententzi bidez ordaindu beharreko kalte ordainetarako aurreikuspen bat egiten da.

* II. Atalburua – Ondasun arrunten erosketa eta zerbitzuak.

Atal honetan aurkezten diren berri garrantzitsuenak hauek dira:

- Partida berri bat sortzen da, 6062 euroakoa, Lan Arriskuen Prebentziorako.

- Branka Gizarte Zentro berrirako mantenurako partidak sortzen dira.
- Hezkuntzan “Klik eta Klik” programa berria sortzen da eta eskola kontseiluko partida igotzen da.
- Ingurumen partida igoera handia dute: kontzientziazio eta sentsibilizazio kanpainetako partida 5.000 eurotan igotzen da eta bi partida berri sortzen dira: bat ibai hondoen garbiketa egiteko, 12.000 euroakoa eta bestea Interpretazio Zentroko gestioa kontratatzeke. Partida hau hasiera batean 6.000 eurotan finkatzen da baina urtean zehar egokitu beharko da kreditu globalarekin.
- Kultur jardueretako partidak ere igotzen dira eta San Telmotako festei dagokiona.
- Euskara arloan, Euskararen Normalkuntzarako Planaren partida igotzen da.
- Turismo, Olarru Egunerako partida sortzen da.
- Kreditu Globalarekin, Interpretazio Zentroak eta PERCOk sortuko dituzten gastuak estali beharko dira.

* III. Atalburua - Interesak.

Atalburu honek, %28,57ko jaitsiera du. %3ko interesarekin egin dira kalkuluak.

* IV. Atalburua - Transferentzia arruntak.

Atalburu honek, %7,59ko igoera izan du. Atal honetako berriak hauek dira:

- Gizarte Zerbitzutan, apartamentu tutelatuak sortuko duten defizita estaltzeko partida igotzen da, baliabiderik ez dutenei ordaintzeko.
- Lankidetzarako partida ere igotzen da, 16.000 eurotara, eta gastu arrunten %68ra iristen da.
- Kiroletan, klub federatuei ematen zaizkien laguntzak ere igotzen dira, 6.000 eurotan eta 18.000 eurotako partida sortzen da estatu mailako piraguismo txapelketa antolatzeko.

Dirulaguntza izendunak:

Eudel 1555 €

Udalbide 7.775 €

Urkome 8.400 €

Uda Musikalari diru laguntza 60.000 €

Musika Patronatuari diru laguntza 69.000 €

* VI. Atalburua - Inbertsioak.

Atalburu honek, aurreko urteko aurrekontu arruntarekin %28,32ko jaitsiera izan du. Kopurua kontuan hartuz, azpimarra daitezke, udaletxearen birgaiketa 800.000 € kiroldegiko gimnasio berriak 300.000 €, kofradiako berrikuntza 122.500 euro, Santio Hondartzako urbanizazio proiektua 84.140 euro, argiteri publikoan inbertsioak 66.300 euro, aglomeratuak 60.100 euro, bi zubien arteko lotura 60.039 euro eta Juleneko komunak eta bidegorriak 60.000 eurokin.

* VII. Atalburua – Kapital Transferentziak

Atalburu hau 478.766 eurokoa da. Igoailuen programarako 66.100 euro aurreikusten dira, 66.100 euro fatxadak pintatzeko kanpainarako, 52.678 Urola Kostako egoitza berrirako eta 293.888 Zumaia Lantzeneko Izartu II programa aurrera eramateko.

* VIII. Atalburua - Finantza Aktiboen aldaketa.

18.030 euro aurreikusten dira langileei kontsumorako maileguak emateko eta 600.000 euro Zumaia Lantzeneko kapital gehikuntza egiteko hirigintza kargak kobratu eta gero.

* IX. Atalburua - Finantza Pasiboen aldaketa.

Atalburu honek %2ko igoera izan du.

8.D. SARRERAK

Sarrera arrunten atalburuek 2005eko aurrekontuan, orokorrean, %7,40ko igoera izan dute. 1 eta 3 atalburuak, 2005e4rako onartu diren ordenantza fiskaletara egokitzen dira. Laugarren atalburuan partida nagusia Foru Fondoarena da eta 2005. ekitaldirako 4.076.310 eurotan aurreikusten da. V. atalean sarrera bat aurreikusten da Biharko enpresarekin sinatu den hitzarmenari dagokiona Gizarte Zentro berriko gestioa egiteko. Sarrera hau etxez etxeko udal langileei dagokiona da.

Finantza pasiboen aldaketaren ondoriozko sarrera (maileguak), 255.000 eurotakoa da, urtean zehar amortizatzea aurreikusten den kopuru bera. Beraz, zorra mantendu egiten da.

Zumaian, 2004ko abenduaren 21ean

Alkate/lehendakaria,

IZUSTARRI Talde Politikoak bere alderdiak aurkeztutako osotasunezko emendakinaren testu osoa irakurtzen du hurrena.

2.005eko AURREKONTUEI OSOTASUNEZKO ENMENDAKINA

PNV eta Eak aurkeztutako aurrekontuei osotasunezko enmendakina aurkezten diogu, gure ustez lehentasun batzuk ez dituelako betetzen. Iruditzen zaigu lehentasun horiek aintzakotzat hartu beharrekoak direla eta 3 arlo hauetan sailkatzen ditugu: enplegua, nazio-erakuntza eta nazioarteko elkartasuna.

- ENPLEGUA:

Arlo honetan, aurrekontu osoan partida bakarra dago. Bertan, Mankomunitateari 141.291 € ematen zaizkio, hau da, aurrekontu osoaren % 0,79. Diru-kopuru hau oso txiki da. Gure ustez, Udalak berak enplegu-politikan eredia izateko posibilitateak baditu eta horretarako lanpostuak sortzea izango litzateke lehendabiziko betebeharra. Horretarako proposatzen dugu:

1.- Kargu publikoen soldatak murriztea:

2.004ko aurrekontuetan bezala, gehiegikeria iruditzen zaigu. Udalak 3 liberatu ditu: Alkatea (30.mailarekin) eta beste bi zinegotzi (13. Mailarekin biak).

Bestalde bere garaian gure desadostasuna aurkeztu genuen alderdi politikoei ematen zaizkien transferentziekin. Kontuan hartu behar da, legealdi berriaren hasieran, % 37 igo zirela.

Oro har, ez gaude ados politika honekin, talde politiko bakoitzak Udaletxeari eragiten dion kostua ez datorrelako bat hauteskundeetan eman ziren emaitzekin.

2.- Enplegurako udal batzordea eratzea eta ordu estrak kentzea.

3.- Azpi kontratazioaren kontrako jarrerei eustea:

II. KAPITULUKO "kanpoko enpresak egindako lanak" partidan diru asko gastatzen da. Diru hau udalean lanpostuak sortzeko erabili beharko litzateke. Diru-kopuru handia erabiltzen da azpikontratatzeko: 1.803.490 €(300.075.487 pta), hau da, aurrekontuaren % 10,08. Diru honekin zenbat lanpostu sor daitezke Udaletxean etxez etxeko laguntzarako, kale-garbiketarako edo San Juan Egoitzarako? Branka gizarte-zentroko kudeaketa ere oso-osorik azpikontratatuta dago.

4.- Udalak **enplegu publikoaren eskaintza atera** beharko luke bete gabe dituen lanpostuak betetzeko. 2005eko Zumaiako udaletxeko plantilla organikoan 13 lanpostu azaltzen dira bete gabe (idazkariarena eta kontu-hartzailearena kontuan hartu gabe). Ogasun Batzordean esandakoaren arabera, horietatik 3 edo 4, 2.005ean aterako dira eta beste pare bat ez ateratzea justifikatuta egon daiteke, baina, hala ere, beste 7 geldituko lirateke oposaketetara atera gabe.

• **NAZIO ERAIKUNTZA:**

Nazio eraikuntzari begira dauden proiektuetara dirua bideratu beharko litzateke "nazio eraikuntzarako proiektuak² izenpean. Aurrekontuak nazio-eraikuntzaren barruan utzi behar ditugu.

Udalbiltzara bideratzen den diru-kopurua alde bateko Udalbiltzara bakarrik bideratzeaz gain, oso kopuru txikia dela uste dugu (aurrekontuaren % 0,04).

• **NAZIOARTEKO ELKARTASUNA:**

Lankidetzara bideratzen den diru-kopurua, nahiz eta 10.000 €igo den 2004ko aurrekontuekin konparatuz gero, oraindik ere oso txikia da (aurrekontuaren %0,19). Gogoratu behar da "0,7 eskatu" kanpaina orain dela 10 urte inguru sortu zela eta oraindik 0,19an gaudela. Euskal Fondoan sartu gara, baina geratzen den diru-kopurua beste gutxi batzuen artean banatzen da. Munduan zehar banaturiko herritarrak non dauden bilatze lana egin eta haiekin harremanak lantzeko bideak ireki beharko lirateke.

BESTE BATZUK:

• **HEZKUNTZA:**

Zumaiako udala Haurreskola partzuergoan sartu zen, baina momentuz 0-1 urteko haurrentzat bakarrik egin du eskaintza. Haurreskola partzuergoa 0-3 urteko haur guztiei eskaintzeko asmoarekin sortu zen. Beraz, eskaintza handitu egin beharko litzateke 3 urte arte eta horretarako proposatzen dugu lokalen bat erostea (adibidez, lehengo Eroski zaharra, Aita Mari auzategian, Herri Eskolatik gertu, gainera) haurtzaindegi bat egiteko. Horrela, ez ginateke behartuta egongo Herri Eskolako gelak erabiltzera.

Gure ustez, inbertsio honek Udaletxearen berrikuntzarenak baino lehentasun handiagoa du.

• **Gizarte-larrialdietarako dirulaguntzak igotzea:**

Gizarte-Larrialdietarako eskaerak asko igo dira azken urte hauetan (nahiz eta Zumaiain hain nabarmena ez izan) eta aurreikusi den diru kopurua 2004ko aurrekontuetako kopuru berdina da.

- **EUSKARA:**

Euskarazko komunikabideei ematen zaien diru-laguntzak eskasak direla iruditzen zaigu. Diru hori (17.400 €) "Baleike", "Berria" eta "Hitza" -ren artean banatuz gero, oso gutxi gelditzen da eta hori besteen bat kontuan hartu gabe.

Tolosaldean edo Aizarnazabalen bertan, adibidez, "Hitza"-ri 3 € biztanleko ematen zaizkio. Proporzio horretan, Zumaiari 24.000 €dagokio, bakarrik "Hitza" laguntzeko.

- **EMAKUMEEN ESKUBIDEAK:**

Ondo egongo litzateke emakumeen eskubideak defendatzeko aurrekontuetan partida berezi bat eratzea. Urteak aurrera doazela tratu txarrak gora doaz, hildakoak ere bai, eta zer esanik ez dago emakumeen langabeziari buruz edo banatutako bikoteen pentsioak ez ordaintzeari buruz.

- **PRESOEN SAKABANAKETA:**

Gure proposamena da "Senideak" taldeari diru-laguntza ematea, sakabanaketari aurre egin ahal izateko. Zumaian bi preso daude: bat Villabonan (Gijon) eta bestea Salamancan. Sakabanaketak presoen familietan hainbat hildako eragin ditu eta, azkenekoa, hain zuzen ere, pasa den asteburuan.

- **INBERTSIOAK:**

Murrizketa handia izan dute 2004ko aurrekontuekin konparatuz gero eta gainera guztien artean nabarmentzen dena Udaletxearen berrikuntzarena da. Proiektu hau, gure ustez, ez da lehentasun bat gutxiago oraindik inbertsioen artean handiena izateko (aurrekontuaren % 4,8ra iristen da).

Bestalde, iazko aurrekontuetan eskatu genuen Oxforden berogailua jartzea eta ez da jarri eta oraingo aurrekontuetan ere ez da aurreikusi.

- **ETXEBIZITZA:**

Puntu hau ez da enmendakinean sartzeko gutxienezko baldintzak gainditzen direlako "Zumaia Lantzen"-en aurrekontuan. Baina, zoritxarrez, zumaiarren betebeharrak ez dira betetzen eta ikusi besterik ez dago azkeneko zozketan (Etxe-Onakoak) 22 etxebizitzarako 527 biztanlek eman zutela izena. Guk proposatu genuen 2005eko ordenantza fiskalei aurkeztutako enmendakinean etxebizitza hutsen azterketa bat egin behar zela eta ahal diren guztiak alokairuan ipini.

Alkateak IZUSTARRIK aurkeztutako osotasuneko emendakinaren atal bakoitzari erantzuten dio, zera adieraziz iaz aurrekontuen proposamenari aurkeztu zitzaion puntu dexente errepikatzen direla aurtengoan ere.

ENPLEGUA: Zumaiako Udalak Urola Kostako gainerako udalekin batera, Mankomunitatean horretarako eratutako enplegu sustapenerako azpiegitura erabiltzen du arlo honetan jarduteko.

Elkarlanean aritzea ahaleginak batu eta eragina nabariagoa izan zedin egin zen. Finantziazio iturriei buruz udalen ekarpenez gain beste baliabide batzuk ere badituztela esan behar da.

Sortu zenean langabezi tasa %20ean zegoen gaur egun aldiz %4-ra jaitsi da. Askok "paro tekniko" deitzen diotenera.

Baina guzti hau ezaguna da zuentzat IZUSTARRIk ordezkari bat baitauka Mankomunitatean.

KARGU PUBLIKOEN SOLDATAK: Iaz ere luze eta zabal aritu ginen gai honi buruz. Gure ustez, erabakia nahiko arrazoitua dago.

Batetik, EUDEL-ek kargu publikoen soldatentzako finkatzen dituen kopuruen azpitik gaude eta bestetik aitortu behar da karguak ardura eta ordu asko eskatzen dituela.

Alderdi politikoei ematen zaien diru kopuruak berriz Plenoko akordio bidez onartu zirenak dira.

Adierazi baita ere, IZUSTARRIk banaketa berri honetan lehengoarekin alderatuz, dagokion kopuruaren diferentzia ez duela itzuli.

AZPIKONTRATAZIOA: IZUSTARRI eta EAJ-k gai honi buruz duten ikuspegi kontrajarria behin eta berriz eztabaidatzeko aukera izan da. Bakoitzak bere ikuspuntua azaltzeko aukera ere izan du. Azken finean udalak enpleguari zuzentzen dion kopuru bat da, langileei ordaintzeko.

BEHIN BEHINEKO LANPOSTUAK: Idazkari eta Kontuhartzaile lanpostuak urtero ateratzen dira lehiaketara, baina oraindik ez dira jabetzan bete. 2.005eko enplegu publikoan Zumaiaiko Udala zenbait lanpostu ateratzeko moduan egongo da: Turismoko Teknikariarena, Turismoko Administrari laguntzailearena, Euskara Teknikariarena, eta Arkitektoarena....

Beste lanpostuen kasuistika zabala da eta banan bana sakontzea eskatzen du denbora eta lanaz gain. Behin behineko izaeraz lanpostua betetzen duen horietako batek, 63 urte ditu; beste bi eszedentzia egoeran daude; hiru udaltzainek ez dituzte betetzen hautaketa prozesuan parte hartzeko baldintzak adina eta garaierari dagozkienak

NAZIO ERAIKUNTZA: Udalbide Taldea.

NAZIOARTEKO ELKARTASUNA: 16.000 €-tan gehitu da diru atal hau. 2004-ko diru izendapenarekin alderatuz gero % 64. Igo da. % 0,7aren mugan gaude. Argitze arren portzentaia hau aurrekontu kontsolidatuaren gain ez dela kalkulatzeko adierazi behar da. Era guztietara ez ditugu atek ixten.

HEZKUNTZA: Zumaian 0-1 urteko haurrentzat gelarik ez da osatu. 1-2 urteko haurrentzat osatu den gelan partzuergoak eskatzen dituen 6 hurreko kopurura ez gara iristen. Une honetan lau haur ditugu eta urtarrilean bosgarrena etorriko delakoan gaude. Haurreskolak jarraituko du baina eskaera handirik ez dagoela aitortu behar da Eskaintza gehitzen den heinean hartuko ditugu beharrezko neurriak Monjetan 1-2 gelan 10 haur dituzte.

GIZARTE LARRIALDIETARAKO DIRULAGUTZAK: Esperientziak adierazten digu orain arte behar guztiak ase direla arazorik gabe. Hala ere gizarte zerbitzu sailak atalen batean beharrik nabarmenduko balu kopurua igo daiteke.

EUSKARA: Komunkabideei diru gutxi ematen zaiela ez nator bat. Zergatik ematen zaio dirulaguntza Berriari eta ez Aldaketa 16-ri adibidez? Hitzakoei biztanleko 1,5 €agindu dizkiet.

EMAKUMEAREN ESKUBIDEAK: Egunero mahai gainean azaltzen den arazo bat da, baina horrek ez du esan nahi ez ditugula behar adinako ahaleginak egiten. Emakumeen eskubideak defendatzeko lege aholkularitza, babestutako apartamenduetan sarrera... beti ase izan ditugu horrelako beharrak.

PRESOEN SAKABANAKETA: Presoen familiartekoei garraiorako dirulaguntzak emateak ez du eragin zuzenik izango istripuak eragoztean eta sakabanaketa desagertzean. Eusko Jaurlaritzak ematen ditu dirulaguntzak.

INBERTSIOAK: Zera gogorarazten du kapital transferentziak ere inbertsio direla. Inbertsioak beraz Zumaia Lantzenen bidez ere bideratzen dira.

ETXEBIZITZA: Ahaleginak eta bi egiten ditugu arazoari aurre egin nahirik. Etxebizitza hutsen ikerketa OCT-k egingo du. Baina aitortu behar da azterketa egitea ez dela zailena, baizik etxebizitza horiek merkatura ateratzea.

IZUSTARRIk bizigunerekin zenbait Udal hitzarmenak sinatzen ari dela eta Zumaiak ere bide hori jorratu zezakeela dio.

EAJ-k eztabaida hori 2.005erako Ordenantzen onarpenean eman zela dio.

PSOE-k **IZUSTARRI**k aurkeztutako osotasunezko emendakinaren aurka bozkatuko duela dio. Ez datoz bat inondik inora, eraikuntza nazionalarekin.

EA-k ere aurka bozkatuko duela dio. Funtsean arrazoi hauengatik:

.-Nazio eraikuntza: era askotan uler daiteke. Udalbiltzak jokatzeko duen papera ere bere horretan hartu behar da.

.-Gizarte Larrialdietarako dirulaguntzak: Saileko arduradunak, Gizarte Laguntzaileak behar gehiagorik nabarmentzen ez duen heinean nahikotzat jotzen da diru izendapena.

.- Inbertsioak: Oxford-en soilik berogailua jartzeak ez dauka zentzu handirik eraikuntza osoa nola dagoen kontuan izanda.

.- Etxebizitzak: Eusko Jaurlaritzari dagokio ikerketa egitea.

Eztabaida amaiturik, osotasunezko emendakina bozkatzen da.

IZUSTARRI-k proposatzen duena.

Gorporaziokideen eskubidezko hamahiru kideetatik bilerara bertaraturiko hamabi kideen bozketaren ondoren, aurkako bederatzi botoz, (5 **EAJ**-renak, 2 **E.A**-renak eta bi **PSOE**-renak), eta aldeko **IZUSTARRI**-ko hiru zinegotzien botoaz, **ERABAKI DA:**

IZUSTARRI-k 2.005 urteko aurrekontu orokorren proposamenari aurkeztutako osotasunezko emendakina ez onartzea.

IZUSTARRI-k aurkeztutako osotasunezko emendakinari buruz, Alkateak erantzundakoei, zera gaineratu nahi die:

Kargu Publikoen soldatei buruz EUDEL-ek finkatutako mailen azpitik daudela esatea ados, baina uka ezina da zeinen erraza den norberak bere buruari soldata ezartzea.

Kooperaziorako dirulaguntzei buruz beraiek adierazi nahi zutena gaizki ulertua izan dela uste dugu. Batez ere PSOE-koek. Guk ez genuen esan nahi soilik zumaiarrei zuzendu behar zaienik. Baina bai ardura berezi bat izan beharko genukeela munduan zehar banatutako zumaiarrekin harremanak sendotzen.

Gizarte Larrialdietako diru izendapenari buruz esan iaz hain zuzen zenbait laguntza eskari kobratu gabe gelditu zirela. Diru izendapen honek zergatik ez du izan gainerakoen moduan KPI-aren% 3,5 eko igoerarik?

Euskarazko komunikabideen atalean Hitzak nik dakidanez 3 €eskatu ditu biztanleko.

Presoen sakabanaketari dagokionez jaurlaritzak beka moduko dirulaguntzak ematen ditu. Zumaiarren eskaerak ez dira onartu.

Amaitzeko esan inbertsioen atalean Udaletxearen lanena gehiegizkoa iruditzen zaigula. Lehentasan gehiago duten inbertsioak badaudela deritzogu.

EAJ-koak berriro ere lehengo erantzunari eutsiz, adierazten dute:

Kooperazioko dirulaguntzei dagokienez, atzerrian dauden zumaiarrekin harremanak badituztela, baina hauetaz gain Sahara, Frente Polisario etbr..-i ere laguntzen zaiela.

Gizarte Larrialdien diru izendapena gehituko dugu beharrak badaude.Eta iaz norbait kobratu gabe gelditu ba zen kopuru gutxi bategatik eta arazo puntualengatik izango zen.

Euskarazko komunikabideen atalean, berriro azpimarratu Hitzak biztanleko 1,5 € eskatu zizkigula eta kopuru hori onartu dela.

Inbertsioen atalean, Udaletxearena gehiegizkoa dela apreziazio erlatibo bat da. Besteak beste, Udaletxearen eraikuntza zaharrak ez ditu gutxieneko irisgarritasun neurriak betetzen, ez langile eta ez bertaratzen direnentzat.

Bileraren hasieran 2.005eko aurrekontu orokorraren bozketa prozedurari buruz azaldu den gidoia jarraituz, lehenik osotasunezko emendakina bozkatu da, eta ondoren EB-Berdeak aurkeztutako enmendakin partzialak bozkatu behar diren edo ez eztabaida sortzen da.

Idazkariak zera dio indarrean dagoen legedia azterturik eta bertan ematen den emendakinaren definizioa hitzez hitz zentzu estuan interpretatuz gero, ezinezkoa dela emendakin partzialik bozkatu.

Izan ere, emendakina gaiaren eztabaida hasi aurretik Lehendakariari idatziz aurkezten zaion diktamenaren aldaketa edo proposamena baita.

Hala ere kontuan izanik Udalak beti defendatu duen irizpidea izan dela bilera aurretik talde politiko ezberdinek eztabaidatu nahi dutena idatziz nahiko aurrerapenez aurkeztea, Plenora testua aztertu eta irizpide bat landuta eramateko eta ez bat-batean eta landugabeko iritzirik gabe harrapatzeko.

Ildo honetatik Ogasun Batzordeak Aurrekontuen onarpen prozeduraren arau eta egutegi bat banatu zuen, batzordekideen artean, besteak beste emendakinak aurkezteko prozedura eta datak finkatuaz. EB-Berdeak Taldeak horretarako finkatutako epe barruan hamaika emendakin aurkeztu zituen, idatziz. Hauetatik batzuk jadanik onartu eta proposamenean sartu dira.

Beraz zentzu honetan legearen intepretazio zabal bat eginaz, hau da Lehendakariari gaiaren eztabaida hasi aurretik idatziz aurkezten zaion diktamenaren aldaketa edo proposamena izaten jarraitzen duela kontuan izanik, EB-Berdeak-en emendakin partzialak bozkatu daitezkeela ere ondorioztatu daiteke.

PSOE-koek emendakin horiek Lehendakariaren aurrean aurkeztu eta ondoren defendatzeko EB-Berdeak Taldeko zinegotzia ez dagoenez ezinezkoa ikusten dute bozketa egitea.

EAJ-ko taldekoak ere iritzi berdinekoak dira beraz EB-Berdeak Taldeak aurkeztutako emendakin partzialak ez dira banan bana bozkatzen.

IZUSTARRI-k EB-Berdeak gazteleraz aurkeztu dituzten emendakin partzialak euskaratzea eskatzen du.

Udalak euskaratu behar dituen eztabaidatzen da.

2.005eko aurrekontu orokorraren proposamena bere osotasunean bozkatu aurretik, **PSOE**-k boto esplikazio gisa zera dio, aurka bozkatzera behartuta daudela, **UDALBIDE ELKARLAN** elkarteari zuzentzen zaion diru izendapenagatik. Dagoeneko Kontuen Euskal Auzitegiak arrazoia eman digu. Elkarte honi dirulaguntzak ematea irregulartasun nabarmen bat dela adieraziz. Izan ere, diru publikoa elkarte pribatu batetara bideratzen da, kontrolik ez duen entitate pribatu batetara.

Eta besterik gabe eguberri festa hauetan, itsutasun politikoarekin amaitu dezagula eta urte berrian bakea iritsi dadila opa dizuegu denoi.

EAJ-ren iritzi, diru izendapen bakar batek aurrekontuaren osotasuna atzera botatzea ekartzea gehiegizkoa dirudien arren, ados ez daukagu zer erantsirik.

Egia da Kontuen Euskal Epaitegiak Udalbideren dirulaguntzak irregularrak direla ebatzi duela. Ebazpen hau Dirulaguntzen legearen aplikaziotik eratorri da eta dirulaguntzen Lege hori Udalbideren aurka zuzenki egiteko diseinatua dago, helburu hori lortzeko "ad hoc" eginiko Legea da.

Alkatea Udalbideko kide da eta ziurtatu dezake, lan garrantzitsu bat ari dela egiten euskararen alde Euskal Herria osatzen duten herrialde guztietan.

Kontraesana dirudien arren Udalbideren helburu berdintsuak dituzten beste leku batzuetako elkarteekin lankidetzan aritzeko ados zaudete, baina Udalbiderekin ez.

PSOE-k erantzuten du ez daudela elkartearen aurka euskara edo euskal kultura bultzatu eta sustatzen dituelako. Arlo horiek eratuta dauden beste erakunde batzuetatik jorratu daitezke.

Udalbideren sorreran daukagu guk ezadostasuna, herri ordezkari batzuek osatua delako. Dirulaguntzak badaude, denak izan gaitzen partaide eta kontrola eraman dezagun.

EAJ-ren iritzian, luze eta zabal eztabaida genezakeen gaia da. Baina kasu honetan organismo publiko kultural bati dirulaguntza emateak, mendekuak edo klandestinitatera bultza gaitzake.

E.A-k aldiz galdera hau luzatzen dio PSOE-ri, ea guztion zergetatik datorren diruz lagundu daitekeen "Fundación Francisco Franco" elkarteak.

IZUSTARRI-ren iritzian PSOE-ren pentsamoldeko ez diren elkarteak ezin daitezke diruz lagundu.

Azkenik 2.005eko aurrekontu orokorraren proposamena bere osotasunean bozkatzen da.

Bozketa eginik, aldeko 7 botoz (5 E.A.Jrenak eta 2 EA-renak), eta aurkako bost botoz, (hiru IZUSTARRI-renak eta bi PSOE-renak),

ERABAKI DA:

1.-Haserako Onarpena ematea Gorporazioaren 2.005eko ekitaldirako Udalaren Aurrekontu bakarrari eta Pertsonalaren Plantila Organikoari.

2.-Akordio hau, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, jendaurreko 15 eguneko epe bat zabalduaz, interesatuak aztertu ditzan eta Udal Plenoaren aurrean dagokion erreklamazioak aurkeztu, 39/1.988ko abenduak 28ko Hazienda Lokalak Arautzen dituen Legeko 150,1 art.ak dioenaren arabera.

Aipatu epea iraganik,eta aurkako iritzirik aurkeztuko ez balitz, Aurrekontua behin betikoz onarturik gelditzen dela kontsideratuko da akordio berriren beharrik gabe.Alegazioak aurkeztuko balira, Udalbatza osoak hilabeteko epea izango du hauek ebazteko.

3.- 2.005-eko Aurrekontua behin betikoz onartzen denean, Atalburukako laburpen bidez,Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da Plantila Organikoarekin batean, 39/1.988ko abenduak 28ko Hazienda Lokalak arautzen dituen Legeko 150,3 artikulua dioen bezala.

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate-Lehendakari andereak GABON FESTA ZORIONTSUAK eta 2.005. URTE BERRI behar bada ARE ZORIONTSUAGO BAT OPATUAZ bilera amaitutzat eman du, gaueko bederatzia eta hogeita hamar minutu direnean, eta nik Idazkariak fede ematen dut.

ALKATEAK .-

IDAZKARIAK.-